

Gu ere AED bazkide gara Eta zu noizko?



* Argazkian bazkide asko falta izatearen arrazoia guztiengana heldu ezina izan da.

AED ELKARTEA

BAZKIDE IZAN NAHI DUT

Izen-deiturak

Helbidea

Etxeko telefonoa

Moztu papertxo hau eta helbide honetara bidali:
AED, Pablo Uranga, 4 etxabea. 20.500 ARRASATE, edo 79 54 46 fnora. deitu.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,
Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertsoskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Errealitatea? Ametsa?

Arratsaldea, ilunabarra, nekea. Mahai ingurua trastoz eta eginkizunez betea. Egun osoa bulegoan, paper eta liburu artean, tresneriz inguraturik: idatz-makina, ordenadorea, fotokopiadora, ... denak utzi, berebela hartu eta Urkulura igo naiz. Ah ze giro garbia! Eta margoak, mendiak, zuhaitzak, ahata batzuk igerian, ustegabeko irriparra diseinatu dute nere aurpegian. Urtegiaren inguruan paseiatzen hasi naiz. Luzaro gabe, muga gabeko zero urdina, txorien kantuak, ur barearen lasaia ta inguruaren gozamina, barnean sartzen hasi zaizkit.

Beste mundu bat, beste arnas bat, beste ni bat. Kopeta iluna argitzen hasi zait; neramatzien kezka garrazak ospintasuna galtzen hasi dira eta eguneroko arrapatakea patxara bihurtu. Bere eragin barekoi eta ameslaria, ongarriz betea, ezarri dit Naturak.

Ongi eta sakon sentitzen hasi naiz. Nere nia, bera ere Naturaren atal, Natura sentitzen hasia zait: biziduna bizidunen artean, nahiz landare, nahiz zuhaitz, nahiz pizti, nahiz arrai, nahiz hegazti. Ni ere Natura, Izadiaren umontzian, sabel epelean.

Ilunabarreko brisak aurpegia

miazkatu dit; gozoa benetan! Muga gabetasunera, infinitora deitu eta narama adimenak, eta ... askatasunaren irrintzi freskoa sortzen zait bihotz barnean. Izan ere, hainbeste gauza ederren artean, ez naiz gauza sentitzen ni. Natura garatua sentitzen naiz, ez Zer, Nor baizik.

Hil berria dugun on Jose Maria Barandiaran etorri zait burura: Euskaldunon sustraian, gure kulturaren oinarri ta sutabe, zioen, **Beste Baten baiten bizi eta hiltzen** garenaren *sentipena ta ziurtasuna dago*.

Eta Jainkoaren arnasa somatu dut. Izadia ata ni, Naturaren ataltxo, Bere baitan bat dugu izate, Bere baitan bait gara, eta ... dardar eztsitu, epel eta dohatsu batek inguratu eta barreiatu nau.

Irakurle, zer derizkiozu? Ilusioa? edo errealitatea? Olerki ameslaria? edo bizikizun objetiboa?

Noiz gaude sustraizko eta benetazko errealitatean? Gizonok sortu ditugun tresnerien eta problemen artean, giza-arrastoa eta gaizkia besterik erakusten ez digutela? edo eta gainezkaten gaituen Izadiaren erdian eta gure muga gabeko barne baitan, Misteriora ireki eta bultzatuak sentitzen garenean?

SAGARRAGA

JOSE MARI ASTIGARRAGA

Memesa

79 42 22

AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA

centers

Pasajes de San Pedro, 1

GASTEIZ

Tfnoa: 945 - **28 35 34**



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


**MUXIBAR
TABERNA**

**Ezin hoberik
inguruan topatu!**

Bizkaia Etorb.
Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Ikastoletako
matrikulazio kanpaina**

Azken bolada honetan batek baino gehiagok ikusiko zenituzten San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolek egin dituzten aurre matrikulazioarako propagandak. Merkatua estutzen etorri ahala, eskeintza ere hobea egin behar. Elkarren artean daukaten konpetentziaren burrukak eskolako programak gaur egun gizartean indarrean dauden ikasketa alorrak lantzeraz bultzatu ditu, neurri batean beraien bizi iraupena bera ere ziurtatzeke. Bitartean funtsezko arazoa duguna eskola bietan ate ostean zai. Gure umeak kalean nagusiki erderaz ihardutea eta irakasle goak orokorki gai horrekiko adorea galdu izana. Gurasoen artean berriz "ume honi zer demonio irakatsi diote eskolan, bada!!". Gehiago edo gutxiago kasik "galdutako bataila"-tzat dago arazo hau. Ezagutu bai, baina erabili... Niri ere umetan hori sarri gertatzen zitzaidan. Etxean utzitako kuadernoarekin ez zen zer egin handirik izaten (benetan etxean bazen beste kontu bat zen, baina tira).

Egoeraren aterabidean bi aukera izan ditzakegu: publizitaterako banatzen diren triptikoetan ez bakarrik ordenadore eta ingelesaren programak badirela erakutsi, baizik eta emaitzak eta sinesgarritasuna lortuta benetako ume euskaldunak ateratzen diren ikastolak direla adierazi; horren ondorioz urlia ikastolatan ume euskaldun gehien denbora gutxienengoan ateratzen badira bertan matrikulatzeko beste puntu bat gehiago izango da. Bestelakoari akademia titulua eranstea ere kasik zilegi izan daiteke.

Bigarren aukera ezberdina da. Helburu bera izanda gaiaren garrantzia eta orokortasuna kontutan izanik, elkarrekin lankidetzan gai amankomun honi ekitea. Ni bigarrenaren aldekoagoa nauzue. Animo!!

I. I. I.

Arrasateko Senideak

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi nizkieke Arrasateko herriari Canariatako Salto del Negroko espetxean dauden gure senitartekoekin azken egunotan azaldu duen solidaritateagatik, kontutan izanik gainera sòldaritate horrek are balio handiagoa hartzen duela eta gure familiartekoekin bat ez datozen pentsamendu politikoak dituzten Alderdi, Erakunde eta Herritarren kasuan, Gizakiaren Eskubideak ideologia ezberdinen aurretik jartzen jakin izan dute eta.

Begibistakoa da Salto del Negroko egoera, une honetan kritikoa bada ere, ez dela salbuespena, ez eta gutxiago ere, eta gure familiarteko presoen gartzelako egoeraren adierazgarri dela, Estatu Espainiar, Frantses eta berriki Uruguaioko ehun bat espetxetan sakabanatuta daude eta.

Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen konkulkazioa, eta Estatu Espainiarreko espetxetan espetxeratzeari buruzko legeria ez betetzeak, Euskadiko herriari eta gure kasuan Arrasatekoari informazioa emateko konpromezua hartzeraz behartzen du Senideak, euskal preso politiko exiliatu eta deportatuen familiarteko osatutako elkarte humanitario gisa. Informazioa, preso bezala gure familiartekoekin dagozkien eskubideen zapalkuntza sistematikoari buruz, izan ere arazoa ezagutzeak sortzen du kontzientzia eta kontzientziak konpromezua, eta gehiago Arrasate bezalako herri batetan, historikoki ere bere askatasuna lortzeko borroka egitea izan bait du ezaugarri.

Preso, herritar eta herri bezala merezi ditugun eskubideak errespena arazteko gai izaten garen neurrian, behin betirako baketzearen bidea gertuago izango dela uste dugu.

Eskerrikasko

BARRENA, SENIDEAK-EKO PARTAIDEA

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12 ARETXABALETA

Bakeaz kezkatuta zaude?



Elena Hernandez
(Umezaina)

Bai oso kezkatuta, gauzak egunez egun okerrera doaz eta. Irtenbide bakarra geure artean enfrontamendurik ez egotea da; ez dugu elkar errespetatzen, gainera politika eta razismo arazo asko daude eta guzti horrek gauza txarrak dakartza.



Agustin Etxebarria
(Langilea)

Bai horixe. Irtenbidea ez da samurra, baina bakea lortu daitekeen gauza da, bakoitzak ahal duena egin beharko du horren alde.




Enrike Salas
(Langilea)

Bai, noski. Irtenbideak egongo dira, eta aurkitzen egin beharko genituzke ahalginak.



Begoña Esnal
(Etxekoandrea)

Kezkatzen nago, bai. Bakea lortzea zail samarra ikusten dut, denok borondatea jarriz gero, lortuko genuke, baina...



Jose Barquero
(Jubilatua)

Bai, konpontzea gustatuko litzaidake. Irtenbiderik



Julio Izarzelai
(Langilea)

Nahiko kezkatuta nago, baina ez dakit zer irtenbide emango niokeen, ideiarik ez.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazki	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILERAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



5

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Un buen policia" (7-9.30).
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gauez: Camacho, Bergara.

6

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El amante" (5-7.30-10)
- HIESaren aurkako astea: *Tu nantes del Norte* antzerki taldearen emanaldia, Herriko Plazan arratsaldeko 6etan. Rock jaialdia: *EH Sukarra, Zakarrak* eta *AM 53* Monterron parkean gaueko 10etatik aurrera.
- Jubilatuen Eguna: Kalejira dultzaineroekin goizeko 11etan; Meza eta ohorezko aurrekua Lore Gazteak dantza taldearekin eguerdiko 12.30etan; Bazkaria, ordu-bietan eta ondoren sari banaketa eta dantzaldia.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gauez: Puy, Bergara.

7

IGANDEA

- Zinea: Alai: "El amante" (5-7.30-10)
- Besaide Mendizale Elkarteak antolatutako mendi ibilaldia: Aguera - Balmaseda.
- HIESaren aurkako astea: Eguerdiko hamabietan, Sebero Altuben txalaparta eta bertsolariak. Ordubatean, herriko kaleetan zehar giza-katea.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Puy, Bergara.

8

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El amante" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauez: Guallar, Bergara.

9

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El amante" (7-9.30)
- Ameriketako Herrietaz Ihardu-naldiak: Aurkezpena, Monterronen arratsaldeko 6etan. Indigenismo-ari buruzko hitzaldia, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Estella, Bergara.

10

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gauez: Mozos, Bergara.

11

OSTEGUNA

- Ameriketako Herrietaz Ihardu-naldiak: Hitzaldia, "Ameriketako indioei" buruzkoa.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gauez: Camacho, Bergara.

Kirol Agenda

Pilota

- San Juanetako Txapelketaren hasiera: Larunbatean, infantil eta jubenil mailako partiduak; igandean, alebin mailakoak. Iturripen, goizeko hamarretatik aurrera.

Deialdiak

• Barnetegiak

Aurtengo udan barnetegiak izango dira Arantzazun. Lau txanda izango dira, ekainean, uztailan eta abuztuan zehar banatuko direnak. Egunean zortzi orduko klaseak izango dira eta euskalduntze prozesu guztiak sakonduko dira. Prezioa 36.500 pezetakoa izango da eta eskola eta hospederiako pentzio osoa sartzen da. Ikastaroaren iraupena 13 egunetakoa izango da eta matrikula egiteko telefonoz dei daiteke: 416 24 72 edo 416 65 68 zenbakira. Horretarako epea ekainaren 25ean bukatzen da.

• Gazte elkartrukea

Arrasate eta Badajozko Al-mendralejo herrien arteko gazte elkartrukea izango da uztailan. 15-17 urte bitartekoek har dezakete parte eta prezioa 12.000 pezetakoa izango da. Izena emateko Gazteentzako Informazio Bulegora joan edo telefono honetara deitu: 77 00 65.

Mendia

• Besaide

Besaide Mendizale elkarteak mendi irteera bat antolatu du datorren iganderako, ekainak 7rako. Agueda eta Balmaseda herriak zeharkatuko ditu. Irteeran parte hartu nahi duzuen guztiok, elkartean bertan eman dezakezue izena eta baita besitelako informazioa jaso ere.

Jaiak

• Jubilatuen eguna

Larunbatean SUDCek antolatuta, jubilatuen eguna ospatuko da Arrasaten. 11etan kalejira izango da herriko Dultzaine-



Ameriketako herrietaz ihardunaliak

Monterronen, hitzaldiak, bideo emanaldiak, erakusketa...

Ekainaren 9tik 19ra bitartean Ameriketako Herrietaz ihardunaldiak izango dira. 9an aurkezpena izango da Monterronen arratsaldeko 6etan. Eta 7etan Indigenismoari buruzko hitzaldi bat izango da. Ostegunean, ekainak 11an Ameriketako indioei buruzko hitzaldi bat emango da Monterronen. 16an, asteartean bideo emanaldi bat izango da, arratsaldeko 7etan "Amazoniako Indioak"ri buruz. Ostegunean ere beste bideo emanaldi bat izango da, "La selva esmeralda" izenpean.

Era berean erakusketa bat izango da 9tik 18ra bitartean Monterronen, Mugarik gabe elkarteak antolatuta. Panelez eginiko erakusketa izango da eta Indigenismoari dagokion historia eta herrien ezaugarriak erakustea nahi da. Bost ataletan bana daiteke erakusketa: kolorezko 30 eta zuri beltzeko 10 argazki; zapi, musika tresnak, ehiza armak, marrazkiak eta beste artesianiazko lanak; testu, leku eta egutegiaren laminak; liburu batzuen erakusketa eta girotzeko musika ere.

Mugarik gabe erakundeak, garapenari laguntzeko ez-gobernatar erakundetzat jotzen du bere burua

roak alaiturik. 12.30etan herri meza San Juan eleizan eta ohorezko aurrezkua Lore-Gazteak dantza taldeak alaituta. Eguerdiko ordubietan, lagunarteko bazkaria eta arratsaldeko dantza izango da.

• Araba Euskaraz 92

Ekainaren 14ean Armen-tian, Gasteiz ondoan, Araba Euskaraz 92a burutuko dela eta, AED Elkarteak autobusak antolatu ditu bertara joan nahi dutenentzat. Autobusak 9'15etan aterako dira Garibai Geltokiaren

aurretik eta izena eman nahi dutenek ekainaren 12a aurretik egin dezakete AEDn, Hire liburudendan edo Iturriotz tabernan. Bidaiaren prezioa 650 PTA, izena ematerakoan ordaindu beharrekoak.

• Atzeratuen eguna

Datorren igandean atzeratuen eguna ospatuko da Musakolako kiroldegian. SUDCek antolatzen duen egun honetan egitaraua honako hau izango da: 12etan polikiroldegian bilduko dira eta Musakolako ka-

leetan trikitixarekin kalejira izango da. Eguerdiko 2.30etan bazkaria izango dute Kataiden eta bazkal ostean opariak banatuko dira eta jokuak ere bertan izango dira.

• Haur dantzarien eguna

Lore gazteak taldeak antolatuta haur dantzarien eguna ospatuko da datorren 21ean. Egun honetan haur asko etorriko da kanpotik Arrasatera eta guztiak hemengo etxeetan bazkaldu beharko dute. Hori dela eta, norbaitek haurren bat konbidatu nahi badu AEDn eta Hiren eman dezake izena.

• Zaharren eguna

Ekainaren 8tik 14ra bitartean Iturbide egoitzan "Zaharren astea" ospatuko da. Astelehenean ikastolako abesbatza eta txistulariak izango dira bertan. Asteartean, Txatxipel taldearen emanaldi bat izango da. Asteazkenean herriko kristau gazteen taldea izango da. Ostegunean goizeko 11etan Jose Mari Astigarragaren hitzaldia eta arratsaldean Zabale anaiak trikitilari direla, hiru Dantzari bikoteraren emanaldia izango da. Ostiralean, arratsaldean Arrasate Musikalen emanaldia. Larunbatean, Hondarribira egingo dute bidaia. Igandea izango da ekintzen azken eguna, goizeko 11etan egoitzako kaperan meza izango da.

Lehiaketa

• Literatura

Aretxabaletako Euskara Batzordeak literatura lehiaketa antolatu du. Lan guztiak euskaraz izan behar dira. Olerki eta ipuin sailak bereiztuko dira. Eta bakoitzean hiru sari desberdin: 50.000, 25.000 eta 15.000 pezetakoak. Ekainaren 19a baino lehen bidali beharko dira eta uztailaren 14an banatuko dira sariak

“.....
 Gizarte modu honetan, helburu nagusia nolanahi aberastea izanik, horrek deskoneksionatu edo lokarri gabetua, eta seko koldartua, eskatzen du. Bi tresna erabiltzen dituzte horretarako: polizia eta mass media, telebista esan nahi dut.

(...) ETA kolpe latzak hartzen ari dela, biziki une estu baten dagoela eta sekula ikusi dugun eraso gogorrenaren aurrean, hori ukaezina da. Baina hortik ETA bukatu dela esatera...ETAren indar nagusiena herri honen gogo da. Herri honek bizi nahi du, bai ala ez? (...)

Autobidearen arazoari eman zaion irtenbideak irakaspen handi bat ematen digu: gure arteko arazoak gure artean hitzeginda konpontzen ahal direla. Lorpen bat izan da, eta horren emaitzak bakoitzak bere errota-
 ra eraman nahi izan arren, esan behar da lorpen horren bermatzaile handiena Lurraldea izan dela”.


(Joxe Manuel Pagoaga "Peixoto" k Egunkarian 92-5-31n)

“.....
 Multimediaren kontzeptua Arrasaten gauzatu dadin beharrezkoa zen Arrasate Press eta ATBren batuketa gauzatzea, alde batetatik dauden energiak gehiago aprobetxatzeko eta bestetik bi proiektu hauei sendotasuna emateko. (...)

Herri prentsa euskaldunak euskaraz irakurtzeko ohitura zabaldu du, edo bestela galdetu duela hiru urte edozein pertsona nagusiri ea bere burua euskaraz irakurtzen ikusiko lukeen. Publizitate mundua euskaraz mugitzea ere lortu dugu. Gaur egun merkatariek ez dute galdetzen Arrasate Pressen publizitatea euskaraz egin behar den”.

(Arantzazu Loidik Argia astekarian)

Zer berri dago HIESaren inguruan?



ONUko OME erakundeak 2.000. urterako aurreikuspen bat atera du HIESaren inguruan. %70a bide heterosexualetik igortzen da, hau da, ez da homosexualen ez heroinazaleen gaixoa bakarrik. Bestelako prebisioak urtero aldatzen dira. Ezagutzen diren azkenak esaten digutenez 25-30 miloi helduk VIH birusa garatuko dutela, pediatria adinean dauden 5-10 milioik izango dute birusa eta adin honetan birusa garatzeko azkartasuna izaten da kezkarriena. Bestalde, 15 urte baino gazteagoak diren 10-15 milioi haur umezurtz garatuko dira, gurasoak HIESaren ondorioz hilgo direlako.

Trasmititzeko bideak hiru taldetan bana daitezke: heterosexuala, zainaren bidezkoa eta haurrak amarengandik. Azken honetan, portzentaien arabera, birusa duten emakume haurdunak birusarekin izaten du semea, hauetatik %15ak bakarrik garatzen du gaixotasuna.

Honetaz gain, gizarte mailan dagoen errefusa aipatuko nuke. Historian zehar beste edozein gaixok izan ez duen errefusapena jasaten ari da. Ikastetxeetan haurrak jasaten ari diren baztertzea ez da ezagutu orain arte.

Oraindik ez da sendatzeko ezer ezagutzen baina aurrerapen handiak izan dira. Ezagutzen den tratamendu bakarra *Retrovir* botika da. Hala ere, gaur egun ikusten da zabalik dagoen leiho bat eta ikerketak hasi zirenean ikusten ez zena. Oso posible ikusten da hamarkada honetan gaixotasunari irtenbide bat bilatzea.

JOSE RAMON PEREZ

GAZTEIZKO TXAGORRITXU OSPITALEKO MEDIKUA

IRAGARKI HAU 6.100 EXETAN SARTU DA.

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.

Aramaio

• Mus eta tute txapelketak

Oletako *Danok Bat* Elkartean eta Lastra-Goikoetxea tabernetan, mus eta briska txapelketa hasiko da. Bikote bakoitzak 5.000 pezeta ordaindu beharko du txapelketan eta azken afarifestan parte hartzeko, ekainaren 10a baino lehen eman beharko dute izena.

• Gurutz Sainduren jaiak

Datorren igandean, ekainak 7, Gurutz Sainduren mendiko jaiak ospatuko dira. Eguerdiko 12etan meza izango da eta ondoren erromeria alai arratsaldeko 6ak arte. Egunean zehar taberna eta salda zerbitzuak izango dira.



Bergara

• Paskoa jaiak

Gaur hasten dira Pentekostes jaiak edo Pazkoak Bergaran. 19.45etan hasiko dira ospakizunak "Ikurrin dantza"rekin. Ondoren txupinazioa eta Bitorioan txoren jeitsiera izango da. Gauean bi kontzertu desberdin izango dira: frontoian *Caribe Nibor* eta Bideberrin *EH Sukarra, Sucking What* eta *Requiem* taldeekin. Larunbat goizean jarraituko dute ospakizunek eta arratsaldean urtero bezala pilota partiduak izango dira Frontoian. 17.30etan sokatira txapelketa izango da eta 19.30etan berriz, kiliki, buruhandi eta txistularien kalejira. Gauez, "Las Veneno" taldearen emanaldia izango da. Igandeko ospakizunak txirrindulari froga batekin hasiko dira. Ondoren dantza askatu txapelketa izango da, eta arratsaldean kaleetan zehar izango den antzerkia da aipagarriena, "No pasen que venimos" obrarekin.

Aretxabaleta

• Txindokira irteera

Murruxiko Mendizale elkarteak Txindokirako irteera bat antolatu du datorren igandeko. Goizeko 8.30etan izango da irteera Partenoitik eta arratsaldean buelta. Autobusa hartzeko Urbaltz tabernan edo elkar-tearen lokalean eman beharko da izena.

Oñati

• Cegasako greba

Cegasa enpresako langileak eteneko grebak egiten ari dira. Aurtengo urteko negoziazioa zehaztea da grebaren arrazoia. Aste honetan izan dira grebak eta hil guztian zehar ere jarraituko dute. Zuzendaritzak %6ko igoera ziurtatzen du aurtengoan, eta langileek %7.5a eskatzen dute.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

ARRASATE
PRESS



77 05 65

Ikastolak Buesaren aurka

Hezibideko ikastolek deituta, joan den astean prentsaurrekoa burutu zen Monterronen, helburua jendeari egoera nolakoa den jakin eta sentsibilizatu araztea eta era berean, Buesaren zesa eskatzea. Ikastolek adierazi zuten, Administrazioak ez du hartutako konpromezurik bete eta "Buesa" legea inolako kontsentsu barik kaleratu omen du, eskola publiko transferituen eredu berbera mantentzen duen legea, alegia. Aipatutako helburuak lortzeko, ikastolek kanpaina bati ekin diote: sinadura bilketa, ikastolen eredu mantentzea eta Udaletan mozioak sartzek osatuko dute ekintzen zerrenda.

Gose eta egarri greba bukatuta

Jesus Mari Zabarte eta Pedro Guridi arrasatearrak eta Salto del Negroko espetxean zeuden gainontzeko euskal presoek egin duten gose eta egarri greba bukatu egin zen pasa den astelehenean. Dirudienez, gartzelako zuzendaritzarekin akordio batetara iritsi eta gero eman zitzaion gose eta egarri grebari bukra

Zuzenketa


Joan den asteko alean, San Kristobalگو hilerriari buruzko informazioa ematerakoan, panteoiak 1994. urtera arte ezin izango zirela erabili adierazten zen. Dirudienez, informazio hori okerra zen eta panteoiak hilerria zabaldu eta berehala erabili ahal izango dira.

ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

- Jon Ruiz de Azua Salaberri, maiatzaren 22an.
- Maialen Uranga Arabaolaza, 23an.
- Itziar Durañona Inurria, 24an.
- Ane Sanchez Zeziaga, 25ean.
- Asier Juan Mondragon, 27an.
- Mikel Gonzalez Garcia, 28an.

Txandaka

EUSENOR



Andoni Sagarna (*)

Euskal Entziklopedia Orokorra da izenburuan ageri den laburtzapenaren esanahia. Izen honen atzean inoiz euskal kulturaren munduan planteatu den asmorik handienetako bat dago. Azken bizpahiru hamarkadetan zehar euskal kulturak ezagutu duen garapentxoari sendotasuna eta aldaketa kualitatibo garrantzitsua ekarri nahi lizkiokeen proiektu bat. Duela hogeituzeroztik zientzia eta teknika euskaraz lantzeaz arduratzen den Elhuyar Kultur Elkarteak eta terminologia teknikoaren eta lexikografiaren arloetan diharduen UZEI Kultur Elkarteak, euskal liburugintzan liderra den Elkar argitaletxearekin eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearekin batera sortutako elkarte berri baten izena ere bada Euseñor. Urtebete baino gehiago aritu dira elkarrizketan eta oinarritzko proiektu bat lantzen elkarreok.

Asmoa liburu bat egitea baino askoz handiagoa eta zabalagoa da eta baita ohizko argitaletxe bat sortzea baino gehiago ere. Kultura bizi batek kontsulta edo erreferentzi obrak behar ditu, hala nola entziklopediak, hiztegiak, atlasak, urtekariak, sinopsi historikoak, etab. Obra hauen bidez batezbesteko hiztun ikasi espezializatugabeak edozein arlotako jakintzagai bati buruzko informazioa eskuetan izan dezake. Kontua ez da gainera informazioa eskuratzea soilik. Horretaz gainera informazioa hizkuntza jakin batean eta ikuspegi jakin batetik jasoko du

kontsultaegileak. Era honetako obrek pixkanaka kolektiboak munduaz duen irudi propioa eratzen dute. Bestalde, gaur egun irakaskuntzaren erreforma eragiten ari den aldaketak ere honelako gauzak eskatzen ditu. Ohizko ikasliburua, ikasketa-programari dagozkion gaiak ikasgaitan banaturik elkarren errezkadan dituen, desgertuz joango da

kontsulta-materialari leku egiteko. Ikasleak ikasgaia ikasi baino gehiago egin beharko du: informazioa bilatu, bildu, antolatu, sintetizatu, aurkeztu, eztabaiatu, etab. Horretarako, ezinbestekoa da erreferentzi obra egokiak edukitzea. Behar hauei erantzun nahi die, hain zuzen, Euseñor-ek.

Ez da txantxetako apustua hori, zeren makineria konplexu bat martxan jartzea eskatzen bait du. Ohizko editorial bat baino konplexuagoa, esate baterako. Informazioa metatua eta antolatua izango duen datu-banku informatibo bat, dokumentazio-zerbitzua, terminologi, lexikografi eta onomastika-zerbitzuak behar ditu, besteak beste. Informazio horrek hainbat forma har ditzake gero: tomo askotako entziklopedia handiak, eskuliburuak, kontsulta telematikoa, CD-ROM diskoa eta beste asko. Gure kasuan helburu nagusia Eusena (*Euskal Entziklopedia Nagusia*) deitu dugun entziklopedia handia da, katalanek egin duten *Gran Enciclopedia Catalana*-ren parekoa, nolabait esateko.

(*) EUSEÑORREKO EDIZIO-ZUZENDARIA



ERRASTI KRISTALDEGIA


**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

ESTETIKA ZENTRUA

**Loditasuna
Dieta pertsonalizatuak
Zelulipolisiak kentzea
Aurpegirako tratamenduak**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54



E. H.ko eta Estatuko garrantzitsuena izango da finantz saila

AKTk 23.000 milioi irabaziko

Lagun Aro eta LKAk osatzen dute finantza saila

Arrasateko Kooperatiben Korporazioko Finantza Sailak, Lankide Aurrezkia eta Lagun Arok osatutakoak, aurten 23.467 milioitako irabazi gordinak izango ditu eta 25.000 milioitako cash-flow-a. Finantza sail honen ondasun osoa 18.000 milioi PTAKoa baino handiagoa izango da eta hartzekodunen baliabideak 419.000 milioi baino gehiago. Era horretan, Kooperatiben Korporazioko Finantza Saila Estatuko eta Euskal Herriko garrantzitsuenetarikoa izango da.

Kooperatiben Korporazioko Finantza Sailean 1.709 pertsona biltzen dira eta bere sorrera iazko abenduan kokatu behar da, Arrasateko Kooperatiba Taldearen III. Kongresuan hala erabaki zen eta. Finantza Sail horren asmoa oinarritzko lau sektoretan hedatzea litzateke: bankan, gizarte aurrikuspenean, produktu parafinantzieroetan eta ase-

guren munduan. Gizarte aurrikuspene-tako hedapenez Lagun Aro arduratuko da; bankaz, berriz, Lankide Aurrezkia. Irabaziei dagokienez, bankaren sailak, urtea bukatu orduko, ondasuntan 50.100 milioitako netoa izango du, 419.500 milioitako berezko errekurtsioekin eta 10.300 milioitako cash-flow-a. Gizarte aurrikespenaren sailaren asmoa, Lagun-Aroena alegia, urte bukaerarako 131.200 milioitako ondasunak, 14.440 milioitako soberakina eta 14.600 milioitako cash-flow-a izatea da.

Produktu parafinantzieroen eta aseguroen sailak Kartera Sozietate gisa hedatzen dira, Aro-Cartera izenez ezagutua. Sozietatearen erdia Lankide Aurrezkiak dauka eta bestea Lagun Arok, guztira 5.000 milioi PTAKo kapital sozialaz. Aukera izanda ere, Aro-Carterak ez du boltsan kotizatuko.

Usteak uste

Egun hauetan ospatzen ari da Arrasateko Ikastolaren 25. urtemuga eta 25 urte hauetatik azken 12ak «bertako» Gobernu baten menpe daramatzagu. Denbora honetan irtenbiderik eza, Euskal Eskola Publikoa gauzatu ez izatea, berez nahiko serioa da baina, gauza hauek zailak izaten ei dira edo zail egiten ditugu. Eta gauzak apur bat bideratuta zeudela zirudienean, politikaren gorabeherak direla eta, hor non Hezkuntza Sailburu berria izendatu, eta inoiz eman den atzera pausurik handiena ematen da. Orain Ikastola eta Gobernuaren artean dauden diferentziak ez dira teknikoak, askoz ere sakonagoak dira, eta Hezkuntza Sailburu honen deklarazioak entzutea besterik ez dago, beretzat ikastolak zer diren eta zer izan beharko lirakeen jakiteko (ingles akademiak?). Eta eredu horretara egoki erazteko erabiltzen ari diren presio bideak: dirulaguntzak (denon dirua dena) ukatuz, gelak kenduz...

Herri bakoitzak merezi dituen mandatariak dauzkala esan ohi da, baina herri honek zerbait maitatu eta defendatu badu, gauza guztien gainetik, bere hizkuntza izan da, ikastola barne. Ez, ez dut uste horrelako agintaririk merezi dugunik.


Gehien harritzen nauena Gobernuaren jarrera, edo, jarrera eza da. Sorpresa izan da eurentzat eurak onartutako Hezkuntza Sailburuaren pentsamoldea nolako den jakitea? Edo, jakinean zeuden, baina amore eman beharrean daude, eurak jakingo dute zergatik? Edo pentsamolde berekoak dira? Zalantza guzti hauei eurak bakarrik eman diezaiekete erantzuna. Zain gaude.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK
JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Hauteskunde zentsua


Hilaren 15a arte, Udaletxeko arkupean ikusgai izango dira Hauteskunde Zentsuaren zerrenda berriak. Zerrenda hauek, hemendik aurrera egingo diren hauteskundeetan erabiliko direnak izango dira, beraz norbera bertan agertzen dela egiaztatzea komenigarria da gero erreklamazioren bat egin behar bada ere. Zerrendak goizeko 9etatik gaueko 9etara izango dira ikusgai eta erreklamazioak asteleheneetik ostegunera egin ahal izango dira, goizeko 10etatik eguerdiko 12.30etara eta arratsaldeko 15.30etatik 18etara.

Mondragon Kooperatiba Korporazioa Europako onena

General Motors enpresak Mondragon Kooperatiba Korporazioa Europako onena izendatu du, hornitzaile onena izateagatik. Saria Javier Mongelos-ek jaso zuen Sevillan, Jose I. Lopez de Arriortua General Motors enpresako Lehendakari-ordeari eskutik. Gogora dezagun Mondragon Kooperatiba Korporazioak 4.200 milioi PTAKo kontratatutak sinatu ditu eta General Motors-ekin.

Bost urtetako garantia Fagorrek

Pasa den maiatzaren 1etik aurrera, Fagor lantegietatik ateratzen diren elektroaerogailu guztiek bost urtetako garantia izango dute. Bost urtetako garantia hori Estatuan eta Europa mailan elektroaerogailuen sektorean eskaintzen den handiena da.



Parkearen goikaldean taberna jartzea pentsatzen da udarako

Santa Barbara irailerako?

Gazteluaren agerpenak urbanizazioa atzera dezake

Santa Barbara parkean agertutako gazteluaren aztarnekin zer egin erabaki arte, ezin izango da jakin Santa Barbara urbanizatzeko lanak aurrez pentsatutako eperako amaituko diren, irailerako hain zuzen ere. Aztarna horien agerpenak gauzak atzeratzen ez baditu lanak irailerako bukatuko dira, baina zerbait berezia egitea pentsatuz gero zaila izango litzateke jarritako epea betetzea.

Aipagarria da, bestalde, parkearen behelaldean urbanizazio lanen aurrekontuan sartuta ez zeuden umeentzako

txintxaunak jartzeko asmoa ere dagoela eta lan horren adjudikazioa ere, oraindik egiteke dagoela. Txintxaunetz gain, parkearen urbanizazioan goikaldean jarri behar den txiringittoa, antza denez udaran taberna jartzeko litzateke, terraza, mahai, aulki eta guzti.

Obraren aurrekontua, urbanizazioa, lorategiak eta mobiliarioa barne, 130 milioi PTAKoa da gutxi gorabehera, baina kontuan hartu beharko dira gaztelua eta txintxaunekin egin beharrekoak ere, horiek ez daude sartuta eta.

IZAGIRRE
harategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

EDER
apaindegia

honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Solarium-a
- Ileenketa
- Masaia
- Manikura
- Larmintz garbiketa
- Makilaia
- Pedikura

Maalako errabala, 6 1. ezberra
ARRASATE Tfnoa: 79 71 23

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

ARRASATE
PRESS

77 05 65



Txakurren txertaketa borondatezkoa bada ere, gomendagarria da.

Amorruaren aurkako kanpaina

Baserri auzoetan egin ondoren orain kalean egingo da

Hasiera joan den astean eman bazi-zaion ere, aste honetan txakur-amorruaren aurkako kanpainaren bigarren zatia beteko da. Lehen astean txertaketa baserri-auzoetan egin zen eta aste honetan kalekoetan, egunero arratsaldeko 7etatik 9etara: astelehenean tren-geltoki zaharrean, asteartean Musakolako kiroldegian, asteazkenean San Andreseko Gudarien plazan, ostegunean Santamainako jubilatuen etxe ondoan eta ostiralean Udalpe eta Erguin kaleen izkinan.

Txertaketari buruz, gogoratu behar da borondatezkoa baina era berean gomendagarria dela, eta txertatzerakoan osasun egoera onean egon behar duela txakurrak. Txerto bakoitza 2.000 PTA kobratuko da eta txertaketa egiten duten guztiei, parasitoen aurkako borrokari buruzko inprimakiak banatuko zaizkie.

Txertaketa kanpaina berezi honetan txakurra eramaterik ez duenari, albaitariarengana joanez gero urteko beste edozein egunetan egin daitekeela gogora arazi behar zaio.

□ Larreako Etxebizitzak

Larrea Etxebizitzen Kooperatiban dauden guztiak aste honetan jakin ahal izango dute etxebizitzak nork egingo dituen, Proginakoak dagoeneko adjudikazioa egiteko asmoa dute eta. Behin adjudikazioa egin eta gero, Udaletxean aurkeztuko da, baimen eta lizentzia guztiak lehen bait lehen egin ditzaten. Horretaz gain, kooperatibistei bilera batetarako deia egingo zaie.

□ Rock taldeen lokalaren funtzionamendu arauak

Herriko rock taldeak entsaiatzeko erabiltzen duten lokalaren obrak bukatuta daudela eta, Gobernu Batzordeak lokalaren funtzionamenduaren araudia onartu zuen. Araudiaren arabera, talde erabiltzaile bakoitzak lokala erabiltzeko urte baterako lagapen-kontratu bana sinatu beharko du. Kontratua sinatzerakoan, talde bakoitzak, taldeko partaideen NAaren fotokopia aurkeztu eta 10.000 PTAko depositoa egingo du. Lokala, goizeko 10etatik gaueko 10etara erabili ahal izango da eta talde bakoitzak, lokala erabili ondoren, garbiketa egin beharko du. Lokalaren erabileran sor daitezkeen arazoak konpontzeko, hilero Udala eta taldeen arteko bilera egiteko asmoa dago eta talde berririk sartu nahi izanez gero, bilera horretara azaldu beharko du. Orain arte bezala, argindarra eta ur kontsumo gastuak Udalaren kontu joango dira.



DAMKART

Estetika eta Ileapaintzaile Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.

Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

EPELDE


argazki denda

Iturriotz, 24

Pando

PINTURAK eta PAPEREZTAPENAK

Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39



Felix eta **Justo Jauregi** anaiak, 1927an, Leze-Handiko kobazuloan zebiltzala, bertako txoko batean estalaktika handi bat zirudiena ikertzera joan ziren eta beste kobazulo txiki bat bilatu zuten, gaur egun **Leze-Txiki** izena duena. 65 urte beranduago kobazuloko atean atera diogu argazki hau Felix-i.



Ibai-Arteko logotipoen lehiaketan lehen saria izabazi zutenak, **Hamabost** taldea, ATBn izan genituen euren saria jasotzen. **40.000 PTAtako txeke handi bat** jaso zuten, Ikatzeko Iñaki eta Aranzabaleko Jonen eskutik



Al-Andalus elkarteak kultur astea ospatu du pasa den aste honetan eta igande eguerdian, euren lokalean omenaldia egin zitzaizen jubilatuei. Antolatzaileek hitz batzuk esan ondoren, adineko emakume eta gizonei opari bana eman zitzaizen.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



AEDko emakume taldeak antolaturik, Holanda eta Belgikan izan dira 23 emakume arrasatear sei egunetan zehar. Argazkian Bruselaseko iturri famatu baten aurrean ikusten ditugu, bertako zaindari birekin batera. Hauek bai ederki pasatzen jakin! Nora joango ote dira hurrengoan...



Epelde


Jesus Mari Martin eta **Maria Angeles Gallego** maiatzaren 2an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Mexiko, Cancun eta Acapulcon izan ziren. Zorionak!

Izen
PROPIOAK

● **Ainhoa Sagasta** 10 urtekoa eta **Anne Sagasta** 7 urteko ahizpak, pasa den 30ean bataiatuak zituzten Juan Bataiatzailearen Parrokian. Ez da lehen aldia Arrasaten hone-lako bataioak egiten dirëna, eta beste eleiza batzutan ere egin dira antzekoak.

● **Iñaki Zeziaga** "Divino", Mondrako entrenatzaile berria. 36 urtetako arrasatearra, Eskola Politeknikoan ikasi eta Coprecin lan egiten duena. Erregionaleko entrenatzaile titulua dauka, Mondra jubenila entrenatu izan du eta lehen taldeko bigarren entrenatzaile izan da Iñaki Galdos eta Bengoetxearekin batera. Azken bi denboraldietan Aretxabaleta entrenatu du.

● **Asier Guenetxea**, atxabaltarra, 21 urte. Portugal-eko Txirrindulari Itzulian parte hartu du eta etapa baten irabazlea izan da. Asierrek Eskola Politeknikoan ikasten du eta aurtengoa profesionalen artean bere lehen denboraldia da, *Artiach* taldean.



Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00


92-93 IKASTURTEA

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Matrikula irekita
Hurbil zaitetz gure bulegoetara.

Arrasaten 9etatik 1etara
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara



IBERDROLA
Bezeroaren onerako
egina

Tfnoak: Bezeroak: 12 01 54
Larrialdia: . 12 01 62
Faxa: 12 15 25

Bulegoa: Urkizu Pasealekua, 7
EIBAR



▲
Eskolarteko Bertsolarien Txapelketa Arrasatera ekarri du aurten bere azken kanporaketa. Ostiralean Kiroldegian bildu ziren 400 neska-mutiko inguru eta bertsoak idatzi eta bapatekoa entzuten geratu ziren. Bihar finalera, Donostiara!



▲
 Pasa den igande goizean, **Arrasate Kirol Proiektuak** ikasturtea bukatzeko azken jaialdia ospatu zuen Herriko Plazan. Joku desberdinak izan ziren bertan: golf, gaztelua... eta abar. Ume askok hartu zuten parte eta ezin hobeto pasatu gainera.



▲
Musakolako Jubilatuen Etxeak bere zuzendaritza batzordea berri du. Honako hauek osatzen dute: lehendakaria Simon Arregi, lehendakari ordeoa Andres Inda, idazkaria Frantzisko Barrena eta diru zaina Isidro Auzmendi izendatu ziren. Bokalak: Luzio Urrutia, Pedro Ruiz, Margarita Arejolaleiba eta Frantzizka Ibbabe.



▲
 Argazki honetan ikusten dituzuen neska mutik hauek, **Estatuko Eskola arteko bide-Heziketa lehiaketako irabazleak** izan dira. Erdi maila eta goi mailakoak bereiztu dira eta ikasle zein irakasleak hartu dute parte bertan.



**Parques
 y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN
 SORKUNTZA
 LORAZAINTZAKO
 MANTENIMENDUA ORO HAR
 LANDARE-BIRSORKUNTZA
 HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



Kontxi Azkarate

Amaren laguntzailerik onena



Kontxi Azkarate hamaika anaien artean gazteena da. Hogeitamazortzi urte dauzka eta lehen Bergaran lanean ibili bazen ere, orain ama zaindu eta etxeko lanak egiten ditu. Igandean, urtez urte hutsik egin barik ospatu duen jaiari parte hartuko du: Arrasateko Atzeratuen Egunean.

— Iganderako ilusio handia?

— Bai, asko gustatzen zait egun hori. Iaz Alkatea etorri zen eta detaile polita iruditu zitzaidan, bazkari ederra egin genuen eta baita gero dantza ugari ere. Gainera aspaldiko lagunak ikusteko aukera izaten dut.

— Juerga zalea zara ala?

— Kalem ibiltzea etxean egotea baino gehiago gustatzen zait. San Juanetan ere, oso ondo pasatzen dut; batez ere, salbea, tanborrada eta su artifizialak gustatzen zaizkit, ama edo ahizparen kuadrilarekin ateratzen naiz. San Juanez aparte, Ferrerías kaleko jaiak atsegin ditut, bertan bizi izan nintzen eta horregatik urtero joaten naiz afaltzera, nahiz eta orain Santamainan bizi. Behin Maritxu Kajoiko jaira jaitsi nintzen, baina jende gehiegi zegoen eta berriro etxera bueltatzea erabaki nuen.

— Beste hamar anai-arrebarekin batera bizi izatea erraza da?

— Nik ez daukat inolako kexarik, oso ondo konpontzen naiz guztiekin. Orain amarekin bakarrik bizi naiz, baina oso ondo konpontzen gara. Berak ezin du lanik egin, artrosisa dauka eta. Horregatik etxeko lanak neuk egiten ditut.

— Lan gogorra?

— Ez, osasunez ondo nago eta ez zait asko kosta-

zen; hala ere, etxeko lanak egitea baino gehiago gustatzen zait kalem ibiltzea. Goizeko hamar t'erdia aldera jaikitzen naiz, erosketak egiten ditut, etxera bueltatu, garbiketak egin eta bazkaria prestatu. Bazkalostean, gantxiloa eginez, telebistako tenobela ikusten dut, Rubí. Gero, kaletik zehar bueltaren bat egiten dut amarekin, lagunak edo izebak bisitatu, afaldu, telebista ikusi eta lotara. Gutxi gorabehera horrela pasatzen dut eguna.

— Beraz, kalem etxean baino gustorago...

— Bai, lagun piloa dauzkat eta. Hemen auzoan denek ezagutzen naute; orain, egun batzutan Eskualde Ospitalean egon naiz, herniatik operatuta eta izugarriko bisita piloa jaso dut, gainera gehienak opariren bat ekarri didate.

— Eskolan ere ibili zinen, ezta?

— Lehenengo Biteri eskoletan ibili nintzen, beranduago Bergaran eta azkenik La Concepción ikastetxean. Idazten eta irakurtzen irakatsi zidaten, baina matematika-rik ez. Eskolan ere, gustora

ibili nintzen. Dena dela, gogoratzen dut egun batean Bergaran nenbilenean piper egin nuela, nire lehengusu txikia hartu eta biok izkutatu egin ginen. Ingurukoak kezka-kaz beteta ibili ziren gure bila, baina gu Aretxabaletako izebaren etxera joanda ginen eta bertan gelditu ginen lotan.

— Ikastea zail egin zitzaizun?

— Ez, irakurtzen eta idazten berehala ikasi nuen. Egia esan, memoria ona daukat eta horrek mesede egingo zidan. Orain ere, telefono zenbaki ugari eta jende askoren urtebetetze eguna buruz dakizkit: senideena, lagunena, premiako zerbitzuena, egunkarietako korrespondentia... buru ona daukat gauza horietarako.

— Eta gero zer egin zenuen?

— Eskola bukatu nuenean Bergarako Gureak-en hiru urtez egin nuen lan, sukaldako lanak egin eta umeak zaintzen. Nik tailerrean lan egin nahi nuen eta bazirudien azken urtean tailerrean lan egiteko aukera izango nuela, baina amak nire beharra zuen eta amari laguntzen gelditzea erabaki nuen.

— Umeak gustatzen zaizkizu?

— Jaioberriak bai, baina hazten direnean ez.

— Gustatzen ez zaizun zerbait?

— Manifestazioak eta oiloak. Behin kalem nindoan, manifestazioa zegoen, goardia zibila agertu zen, bolaka hasi zen eta oso urduri jarri nintzen; oiloei txikitatik diet beldurra.

— Igandeko jaiari agertuko da nobioren bat?

— Ez, nobiorik ez daukat, baina lagunak bai. Joan den astean Lourdesen dantza egin nuen bategaz, baina ez zen nobioa, laguna bakarrik.

— **“Osasunez ondo nago eta ez zait asko kostatzen etxeko lanak egitea”**

S. F. Xabier ikastola: 25 urte irakasten

San Frantzisko Xabier Ikastola bere 25. urteurrenaren ospakizunetan buru belarri sartuta dabil. Omenaldiak, ikastaroak, umeentzako jolasak, jaialdiak etabarrek ikasturte arrunt bateko egunerokotasuná bizitzen dituzte. Izan ere, 25 urte igarotzea, mende laurdena alegia, ez da txantxetako gauza, eta poztekoa bada, zergatik ez ospatu?

Mende laurden bat pasa ondoren Ikastolak dirau tinko sortu zenean batzuk zioten "hau laster baino lehen kito" ta denboraren iraganean lortu du hainbat merito izana du samín nahiko iraun dezala betiko (berriz) euskara hartuz eredu gisa luzaroan da biziko sortu ta hedatu baldin badugu hiltzen ez dugu utziko (berriz)

Sorrera

Aurreko bertsoak, bertako ikasle batek egin da, ondo baino hobeto laburtzen ditu San Frantzisko Xabier Ikastolako bizitzaren hogeitabost urteak: etorkizun beltza izan zezakeen jaiotza ausarta bezain lotsatia, denboraren buruz etorri den finkapena eta baikortasunez begira daitekeen etorkizuna; oinarrian, iraganean, orainean eta geroan, euskara.

San Frantzisko Xabier Ikastola "Danok" taldearen ekimenez sortutakoa da.

Talde hori orain 26 urte sortu zen, euskal kultura bultzatzeko asmoz. Asmo horren baitan, "Danok" taldean ikastola sortzeaz arduratuko zen batzordea eratu zen, umeak euskaraz eskolarizatzeko, era horretan euskarak iraungo zuela uste zen eta.

Horrela "Danok" sortu eta urte batera Ikastola ireki zen Abadetxean.

Bidean aurrera

Orduetik hona gauzak asko aldatu dira, irakasle eta ikasle-kopurua

hasi eta finkatu egin da, auzoetan eraikuntza berriak egin dira, Gazteluondo ireki zen... baina aldaketa fisiko edo materialez gain, ideologiko edo hezkuntza sistema berari dagozkienak ere izan dira, aipagarriagoak akaso. "Garai hartan - dio Ederne Erauskinek, Ikastolako zuzendariak- Ikastola herriko indarrak biltzen zituen ideia zen, euskararen helburuaz jende askorentzat elkargune bihurtu zena. Gaur egun, zorionez euskara zabaldu egin da eta Ikastola hezkuntza sisteman sartu da, baina zoritarrez aglutinante edo jendea elkartzeko botere hori galdu egin du. Izan ere, gurasoei seme-alabek jasoko zuten hezkuntza ona zela demostratu beharra zegoen, euskaraz hezi baino ondo hezi. Zentzu horretan, uste dut ikastolak metodologia aldetik gehien aurreratu direnak izan direla, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko orduan bide berri gehienak urratuz. Guzti horren ondorioz, San Frantzisko Xabier Ikastolak ikasleei auzoan eskolarizatzeko aukera, ume



Gazteluondoko eraikuntzatik makina bat ume pasatu dira urte hauetan.

erdaldunak euskalduntzekoa, irakaslego prestatua eskaintzen die eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna eskaintzeko moduan dago”.

Bidea ez da bakarrik egiten

San Frantzisko Xabierrek 25 urteko ibilbidea burutu du, baina Eurne Erauskinetik diotenaren arabera, bidean ez da bakarrik izan ikastola, herritarrak eta zenbait unetan instituzio eta enpresak ondoan izan ditu eta. “Arrasatearrei hasiera hasieratik ikastolaren proiektua posible zela sinistea eskertu egin behar zaie, baita jaietan, gauzak saltzeko orduan edo lana egin behar zenean eskaintako laguntza ere. Herritarrak ezezik, Udala ere beti ikastolaren ondoan izan da, eta lehen unetik hemengo eskola bezala hartu zuen, zinegotziek ikastolarentzat lokalak aur-



Tapia eta Leturia trikitilariak, 25. urteurrenereko ospakizunetan.

kitzeaz arduratzeraino”.

Arrosa kolorekoa orain arterainokoa, baina ezin ahaztu pasatutako une txarrak, ikastolak izan dituen arazoak, dituenak eta izan ditzakeenak. Eurnek lehen urteetako klandestinitateaz

hitz egiten du, beste batzuren esanetan bidez ezagututako garaiaz, diru-arazoz, 1972. urtean antolamendu orduan ikastola barruan sortu ziren eztabaidez edo eta 1984. ean Ferixalekuan, leku beharrez, bizi ziren istiluez. Iragan-

dakoak alde batera, gaur egun Ikastolak badu arazo eta erronkarik ere. “Ikastolek irautea oraindik zalantzan jarri daitekeen gauza da, ez dago ziurtatuta, baina argi dago oraindik beharrezko direla. Buesak jarri ditzaken oztopen aurrean, ikastolak ezin gara lotan geratu eta gizarteari behar duena eskaintzeko gaitasuna erakutsi behar dugu. Gure kasuan, 16 urtera arteko umeei eskola emateko erronka dugu begien aurrean, eta baita instalakuntzetan egin beharreko hobekuntza ere”.

Iragana hor dago, etorkizuna, berriz, aurrean, eta baikortasuna nagusitzeko, beharbada ez litzateke txarra izango lehen urteetan ikastolek jendea elkargantzeko erakutsi zuten gaitasuna berreskuratzea.

Ospakizunetan sartuta

San Frantzisko Xabier Ikastolakoak ez dira txantxetan ibili 25. urteurrenereko ospakizunak antolatzeko orduan. Guztira 8 milioi inguruko aurrekontua, eta hiru helburu nagusi: 1) Iragana berreskuratzea. Hortik ateratako bideoa eta liburua eta Monterronen dagoen erakusketa. 2) Ikastola herriak sortutako gauza dela adieraztea. Ondorioz, antolatutako ekintza guztiak zabalak izan dira, edonork izan du parte hartzeko aukera. 3) Euskal kultura bultzatzen eta euskaraz irakasteko ardura duen Ikastola dela azaltzea. Zentzu horretan, hainbat kultur ekintza, Hika tratamenduari buruzko ikastaroa, Hitzak Jirabiran...

Azkenik, aipagarria da jende askok parte hartu duela antolakuntzan eta herriko elkarte eta enpresengandik laguntza handia jaso dela. Adierazgarria ekintzen egutegia aurkezterakoan batek bota zuena: “Zuek beste Kilometroak 81 egin nahi duzue”.

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

ARRASATE PRESS



77 05 65

Esku-baloi taldeak Gipuzkoako Federazioko Txapelketa irabazi

Bukatu da denboraldia Arrasate Kirolak eskubaloi taldearentzat, eta nola bukatu gainera! Gipuzkoako Federakuntzako Txapelketa irabaziz. Arrasatearrek Txapelketako azken partidua jokatu zuten joan den astean, Beasainen Errenteriako Oarso taldearen aurka: 19 - 15, arauzko denbora bukatu eta gero markagailuan agertzen zen emaitza. Partidua oso parekatua izan zen, lehen zatian markagailuak erakusten zituen diferentziak minimoak ziren. Atsedendian abantaila arrasatearrena, bi goletakoa: 10-8. Bigarren zatia ere oso parekatua izan zen, diferentzia gutxigatik, baina denbora guztian Arrasate Kirolak aurretik eta lehen zortzi minutuetan golik ikusi barik. Markagailua 11na berdindu zen eta azpi minutu falta zirela gol bakar baten



Gipuzkoako txapela lortu zuen taldea

diferentziaz irabazten zuten mondragoetarrek: 14 eta 15, baina azken bost minutuetan aldea handitzea lortu zuten, partidua 19 eta 15 irabazi arte.

Arrasate Kirolak-ek, Josq Manuel Ruiz-en aginduetara, gizon hauek eramane zituene: Jose Antonio Moreno, Josu Epelde, Jesus Santacristina (6), Pako Salterain,

Jon Iraola (1), Jose Andres Urrutia "Galarra" (2), Angel Moraleja "Moro" (3), Mikel Loiti "Aker" (3), Igor Ansoategi "Ansua" (1), Fernando Rodriguez "Fertxu", Jose Luis Borbolla (3) eta Luis Miguel Olivenza "Oli".

Balantzearen garaia

Gipuzkoako Federazioaren Txapelketa hori irabazi da eta horregatik Arrasate Kirolak eskubaloi taldeko jokalariek guztiak zoriondu beharra dago, baina denboraldia hori baino luzeagoa izan da eta ezinbestekoa da laburpen bat egitea.

Jakina denez, nahiz eta jaisteko postuetan ez egon, iazko denboraldian Arrasate Kirolak-ek galdu egin zuten kategoria. Izan ere, estatuko

federazioak talde kopurua murriztu egin zuen eta horren ondorioz galdu zuten kategoria arrasatearrek. Gauzak horrela, aurreko kategorian territorial-ean jokatu dute arrasatearrek, galdutako maila berreskuratzeko helburuaz, noski. Denboraldi aurreko helburua ezin izan da bete, lehenengo partiduetan arrasatearrek puntu asko galdu zituzten eta. Erreakzioa laster etorri zen, baina azkenean ez zen posible izan mailaz igotzea, arerioak hasieran lortutako abantaila handiegia izan zen eta. Hala eta guztiz ere, ligako azken partidua irabazi izan balu, Arrasate Kirolak dagoeneko mailaz igota legoke. Emaitzak alde batera, aipatzekoa da aurreko Arrasateko eskubaloi taldean jokalariek jubenilek egin duten lana, nolabait etorkizun ona ziurtatzen dute eta. Igoera kontuak, datorren urterako utzi behar.

Lehen taldeaz gain, jubenil eta kadete mailako taldeek egindakoaz ezin gara ahaztu: jubenil taldeak oso txapelketa ona burutu eta Euskal Ligara igotzeko aukera izan du; kadeteen taldeak, berriz, ezin izan du oso denboraldi ona egin, baina kontuan hartu behar da jokalariek guztiak berriak zirela.



Bigarren zatiko lehen 8 minutuetan ez zen golik sartu

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

Arantxa Fernandez

Tour osoa zuzenean ikusteko

PODIUMA



Arantxa Fernandez, Dorleta Txirrindulari Eskolako bi emakumeetariko bat da. Talde osoa aurkeztu zenean, bera eta Amaia, Dorletako emakumezko beste txirrindularia, sail honetan atera genituen. Orduan adierazi zuten, aurtengo denboraldian gauzak seriotasunez egiteko asmoa zuten, behar bezala entrenatu eta ahalik eta lasterketa gehienetara joan. Asmo horiek ezin izan dituzte bete, baina Arantxari ustekabeen sari ederra etorri zaio, Frantziako Tourra oso osorik eta zuzenean ikusteko aukera. *"Tourreko antolatzaileek, etapa hasi behar den hirien ordezkari bina konbidatu dituzte Tour osoa zuzenean ikusteko. Aurten Tourra Donostiatik abiatuko da. Donostiako Udalak lehiaketa bat antolatu zuen, bi pertsonari aukera hori emateko. Txirrindulari Eskola guztiekin harremanetan jarri ziren eta test antzerako bat bidali zuten. Test hori bete, eta elkarrizketa pertsonalerako bost txirrindulari aukeratu zituzten, tartean Amaia eta biok. Azkenean, mutil bat eta neu joango gara"*.

Arantxa oso pozik dago Tourra ikusteko aukera hori izango duelako, *"ilusio mogolloia, tio"* esateraino,

baina era berean triste ere bai, Amaia ez bait du aldamenen izango. *"Hogeitamarren bat pertsona izango gara guztira eta jendea ezagutzeko aukera izango du. Horretaz gain, fama handidun txirrindulariak gertu izango ditugu eta paraje berriak ezagutu. Dena dela guztia ez da turismoa izango, erreportairen batzuk ere egin behar ditugu eta"*. Turismoa egingo dute eta baina oraindik ez daki Alpeetako erraldoiak bizikletaz igotzeko aukerarik izango duen edo ez. *"Aproba egitea gustatuko litzaidake"*.

Tourraz ilusioz hitz egiten du Arantxak, aurtengo denboraldiaz ez, ordea. *"Uste genuen inoiz baino hobeto ibiliko ginela eta sekula baino okerrago gabiltza, eskolatik irten eta entrenatzena joateko astirik hartu ezinda. Hiru lasterketa besterik ez ditugu egin eta justu justu amaitzea lortu dugu. Udaran entrenatu eta trailerako sasoi onean egoten saiatu beharko dugu, bestela aurten jai daukagu"*.

◆ Emakumezkoak agur denboraldiari

Nahiz eta joan den asteburuan atxalbaltarren aurkako partiduan 1 eta 2 irabazi, Mondrako emakumezkoen taldeak dagoeneko agur esan dio aurtengo denboraldiari. Arrasatearrek irabaziz gero eta Anaitasunak galdu izan balu, Gipuzkoako Kopa Txapelketaren finala jokatzeko aukera izango lukete, baina Anaitasunak Zumaiakori 5 eta 0 irabazi zionez Mondra final barik geratu da.

◆ Pilotariak San Juanei begira

Emakume futbolarien antzera, pilotariak ia oporrak hartzeko moduan daude. Herrien Arteko Txapelketan, Seguraren aurka jokatu zuten Iturripen joan den asteburuan eta hiru partiduetatik bi irabazi bazituzten ere, Txapelketatik kanpo gelditu dira, Seguran jokatutako hirurak galdu egin zituzten eta. Iturripeko emaitzak hauek izan ziren: Infantiletan 18 eta 5 galdu, jubenetan 22 eta 11 irabazi eta helduetan ere garaipena 22 eta 16. Orain, Arrasateko pilotariei, San Juanetako torneoa gelditzen zaie bakarrik.

Eskuzko partiduez gain, herremintakoak ere jokatu ziren pasa den astean, Altzoren aurka: paletaz arrasatearrak irabazle, 35 eta 33; pala motzez, berriz, altzotarrak, 40 eta 27.

◆ Txirrindulariak motel

Dorletako Txirrindulari Eskolako txirrindulariek joan den astean ez zuten apartekorik egin, ez infantil, ez kadete eta ezta jubenetan ere. Behar bada aipagarriena, infantil taldeak Beasainen eta erlojuaren aurkako Gipuzkoako Txapelketan lortutako bostgarren postua izan daiteke; taldea Oier Garro, Zuhaitz Herrero, J. J. Sedano, Mikel Sebastian eta Mikel Roldanek osatu zuten.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 94

Planaren betekizuna (Jarraipena)

Elburu zailak eta neurri batean utopikoak direnean, ez da erraza izaten betehal izatea. Baina hala ere, nahiko adierazgarria da, ondorengo kuadro honetan aurkezten dena:

Aurtengo ikasturtean sartzen da ereduaren informazioa ez bait zen garai hartan kontenplazten B eredurik, hau dela eta ikuspegia nahiko aldatzen da. Ez da berdin, A ereduari ihardutea eta erdaldun husta izatea, edo eta elebidun

ereduan ihardutea, nahiz eta eredu hau era ezberdinetan gauzatu.

Ikus daitekeenez, ez zen 1979-80 ikasturterako planifikatu zen guztia lortu, baina une honetan erraz gainditu dugula esan dezakegu. Datorren ikasturteko aurrera, gainera, A ereduaren ia ia desagertzen dela esan daiteke, hamarrera ez bait dira heltzen eredu horretan ihardungo duten ikasleak, orain laugarren mailan eredu horretan inor ez dabilelarik.

Hau da herri oso baten helburu garbi batzuk markatzen dituen eta giza ekimenezko indarrak

lanean jartzen direnean lor daitekeena.

San Frantzisko Ikastolaren ospakizunak direla eta, ekintza garrantzitsu hau ezagutu erazi egin nahi izan dut, ez atzera begira jartzeko, aurrera begira baizik, kementsu eta adoretu jarrai dezan bere egitasmoekin. Une hartan proiektu hau aurrera eramateko gai izan bazen, aurrerantzean ere deituta dago eme egotera eta egungo egoerari dagozkion proiektu berritzaile eta kualitatiboak bultzatzera.

FELIX ORMAETXEA
HEZIBIDE

Euskalduntze Prozesua Leintz Bailaran (Portzentaiaetan)

Ikasturtea	1975-75		1979-80		1991-92		
	Prebisioa	Lortutakoa	Ereduak		A	B	D
Maila							
3 urte (EA 1)	40,7 ¹	75	71,1	0	45,5	54,5	
6 urte (OHO)	19,6	65	44,5	0	40,6	59,4	
13 urte (OHO 8)	—	25	12,6	13,7	48,8	39,8	

¹ Eskolaurre osoari dagokion datua bakarrik dugu, ez adinka.



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Arrasateko Udala

1992KO LAN ESKAINTZA

A / Lanpostu finkoak	Zenbat
• "Aukea" Kirol Erakundeko Gerente	1
• Enplegu Teknikari	1
• Gizarte Laguntzaile	1
• Hezkuntza Teknikari	1
• Haur Liburuzain	1
• Obra eta Hirigintza Teknikari	1
• Udaltzain	1
• Uretako Ofizial	1
• "Aukea"ko mantenu Arduradun	1
B / Aldibateko lanpostuak (3 urte)	
• Adm. Orokorreko Teknikari	2
• Gizarte Laguntzaile	1
• Zerbitzu Inspektore	1
• Txoferra-elektrikari laguntzaile	1
• Peoi	2

Oharrak:

1. - Hautaketa-prozesuak aginduko dituzten Oinarri-Arauak udaletxean jaso daitezke.
- 2.- Instantziak aurkezteko **epea ekainaren 22an**, astelehena, arratsaldeko 6.30etan **amaitzen da**.

Arrasate, 1992ko ekainaren 1ean.

ALKATEA

Laster kalean pilotari buruzko liburuxka

Hilaren 21ean, San Juan jaien atarian, Arrasaten Pilotarien Batzarraren zazpigarren edizioa burutuko da. Egun horretan Euskal Herriko pilotari onenak eta pilotazale asko hemen bilduko dira, baita jai giroko ekintza ugari burutu ere.

Pilotarien Batzar hori dela eta, ARKOk aldizkari berezi bat kaleratuko du, hilaren hamabosta baino lehen kalean salgai izango dena. Aipatutako aldizkariak, "Pilota" izenekoak, 144 orrialde izango ditu, 200en bat argazki eta 500 PTAgatik eskuragai izango da. Aldizkarian Pilotarien Batzarrari buruzko informazioa, pilotako modalitate guztien berri, Arrasateko pilotari zaharrez hitz egiten duten erreportaiak, pilotari zahar eta gazteekin egindako elkarrizketak, hildako pilotariei buruzko artikulak "Mondragones"i buruzkoa esaterako, txapel-



keta desberdinetan emandako emaitzak eta ekainaren 21ean omenduak izango di-

ren gizonekin egindako elkarrizketak irakurri ahal izango dira.

◆ "Jokin Zaitegi" sariketa

Itzulpengintza sustatzeko asmoz eta helburuz, AEDk, Gipuzkoa Donostia Kutxaren eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin, "Jokin Zaitegi" Itzulpen Laburren VI. Sariketa antolatu du. Lehiaketaren VI. edizio honetan "V. mendeurrena - Amerikaren aurkikuntza" gaia jorratuko da: Europa eta Amerikaren arteko harremanak, prozesu historikoa, giza eta ekonomi harremanak, bilakaera soziala...

Lehiaketara, munduko edozein hizkuntzatatik -gaztelaniatik izan ezik- itzultako idazlanak aurketeko aukera izango da. Jatorrizko testuak 1989-1992 urteen artean argitaratua egon behar du. Itzultitako testuaren luzerak gutxienez 12 eta gehienez 25 orrialdetako luzeera izan beharko du. Lanak hiru kopian, lemapean, tarte bikoitzez, eta orrialde batetik makinaz idatzita aurkeztu behar dira AED Elkartean, jatorrizko testua erantsiz, azaroaren 6a baino lehen.

Lehen saria 250.000 PTAKoa izango da eta akzesitak 50.000koak.



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA


GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

◆ "Arrasate 92" Lehiaketak

AED Elkarteak, Arrasate eta bere eskualdeko euskal idazleen ekintza sustatzeko asmoz, "Arrasate 92" Literatur Lehiaketa antolatu du, gazte eta heldu mailan. Lehiaketa hiru ataletan antolatu da: ipuina, poesia eta bertso-paperak. Parte hartzaile izateko, Deba Garaian bizi, lan egin edo ikasi behar da. Gaia librea izango da eta lanak 1992ko azaroaren 6a baino lehen AEDn entregatu behar dira.

Literatur Lehiaketaz gain, AEDk "Arrasate 92" Komikia, Argazkia, Diapositiba eta Bideo Lehiaketa antolatu du. Komiki lehiaketaren gaia "Arrasateko modak" da, argazki lehiaketakoa, berriz, "Deba Garaiko gertaerak", diapositiba lehiaketako "Natura, desnatura" eta bideoan gai librea dago. Jakina denez, agertzen diren testuak, hitzezkoak nahiz idatzi-zkoak, euskaraz azaldu behar dira. Lanak AEDn eta azaroaren 6a baino lehen entregatu behar dira hemen ere.

ARRASATE 92

Lehiaketak

- Ipuina
- Poesia
- Bertso-Paperak

Jose Luis Ormaetxea

Arrasateko Toponimia lana bukatuta

Jose Luis Ormaetxea, "Txipi" k orain gutxi bukatu du Arrasateko Toponimiari buruzko lana, orain Udaltxean aurki daitekeena. Filologia Erromanikoa eta Euskal Filologia ikasketak eginda ditu eta orain hamar urtetik Gasteizeko Irakasle Eskolako irakaslea da.

— Lanean gustora?


— Beno, askotan pentsatzen dut beste lanbideren baten. Irakas-kuntzan hainbeste urte pasa eta gero, batzutan uzteko gogoa ere izan dut, baina hori toki guztietan gertatzen da.

— Zenbat denbora behar izan duzu Arrasateko Toponimiari buruzko lana egiteko?

— Hori 1990.eko urrian sortutako beka baten ondorioz egindako lana da. Printzipioz hamalau hilabetetan egin beharreko lana zen, baina luzatu egin dut eta guztira hamazortzi hilabetetan bukatu dut.

— Eta lan hori nola burutu duzu?

— Helburu batzuk jarrita zeuden, lanak "Arrasateko Toponimia" dauka izena, baina hori zehaztu beharra dago; lana, batez ere, Arrasateko Toponimia jasotzea izan da



eta. Horrelako lanetan, oraingoz inportanteena informazioa biltzea dela ikusten da. Bilketa bi iturritatik egin dut: alde batetik idatzizkoa, artxibotik dagoena; bestetik, ahozko bilketa, gaur egun baserriarrek erabiltzen dutena.

— Nahi beste informazio aurkitu duzu?

— Behar nuena baino gehiago, dagoen guztia ez dut bildu eta. Zailtasun

"Baserri giroan, kalean ez bezala, gauzak gutxi aldatu dira"

handiena denbora eza izan da, horregatik lehenetsunak jarri behar izan ditut eta dokumentu interesgarriena-tara mugatu.

— Zergatik jo duzu baserriarregana?


— Toponimia urbanoa bakarrik idazkietan jasotakoarekin landu dut; baserri inguruetakoa, berriz, ahoz zein idatziz.

— Zergatik galtzen dira hitz zaharrak?

— Bizimodua aldatuz doa eta gauzak desagertzen diren heinean, izendatzen duena ere desagertu egiten da. Baserri bat galtzen bada bere izena galdu egingo da, esatebaterako orain Maxi Eroski dagoen tokian duela hiru urte Arruena baserria zegoen, hemendik hogeitamar urtetara hori bakarrik zaharrenok gogoratuko dugu. Hala ere, baserri giroan gauzak gutxi aldatu dira.

— Kuriositaterik?

— Hizkuntzaren aldetik, etimologian sartu barik, gaur egun erabiltzen ez diren hitzak edo orain erabiltzen ez diren zentzuan agertzea normala da: "Haitz-gibel", haitzaren atzea edo oatea izendatzeko edo "Iturri-ttipi", Iparraldean erabiltzen den era berean.



ZELULOLIPOLISIA

(Akupunturako orratzen bidez grasak kentzeko metodoa. **Ezagutu eta harritu zaitetz!! Berria da!!**)

- Zelulitisa kentzea
- 10 saiotan 5-15 zm gutxitzeko aukera
- Berritze tratamendua
- Tresneria ultramodernoak

Santa Kurtz, 24 1. (1. C eskailera) ARETXABALETA

Aste gazte

"... bapatean ametsa aurpegi ezezagunez betetzen zen; neska eta mutil gazteak, gehienak itxura onekoak (fantasiak dena hobetzen du), nire ondotik pasatzen ziren, eskuan kopa bat eta dantza egiteko asmoa adieraziz".

V. Molina Foix



Gazte ekartrukea

• Arrasate-Almendralejo (Badajoz), 15-17 urte bitarteko arrasatearrei zuzendua. Uztailcan: 1. hamabostaldia Almedralejon eta 2.a Arrasaten. Partehartze-kuota: 12.000 PTA. Plaza mugatua.

Lana

• Arrasateko Udalak honako lanpostu hauek batezko deia egin du: a) lanpostu finkoa: Aukeako gerentea, enplegu-teknikaria, gizarte laguntzailea, hezkuntza teknikaria, haur-liburuzaina, obra eta hirigintza teknika-

ria, udaltzaina, Aukeako mantenimendu arduraduna; b) 3 urtetako lanpostuak: administrazio orokorreko 2 teknikari, gizarte laguntzailea, zerbitzu-ikuskatzailea, txofer-ekletrizista laguntzailea et peoi 2. Inskripzio epea: ekainak 22.

Lehiaketak

• Ikertzaile gazteak sariak: 30 urtetik beharako ikertzaileei zuzenduak. Ikerketa-arloak: a) zientzia eta teknologia, b) giza-zientziak, ekonomiak eta juridikoak, c) humanista eta arte ederak, d) osasun-zientziak. Sariak: arlobakoitzeko miloi bat. Epea: ekainak 30.

• Ricardo de la Vega Poesia Lehiaketa. 18 urtetik gorakoei zuzenduta. Gaia: V. Mendeurrena. Poesia bana bakarrik aurkez daiteke. Epaimahaia partehartzaileek osatuko dute. Lanak aurkez-

teko epea: uztailak 1.

• "Portugalete Hiria" jendeaurrengo VIII. Pintura Lehiaketa. Uztailaren 19an (igandea). Gaia: hiriko alde zaharreko zerbait. Neurri eta teknika libreak. Sariak: 80.000, 60.000 eta 40.000 PTA.

• Amurrio Hiribildua XIII. Pintura Lehiaketa. Neurri, teknika eta gai libreak. Sariak: 150.000, 75.000, 25.000 eta trofeoak. Epea: uztailak 25.

• "Natura eta ekologia" VIII. Argazki Lehiaketa. Argazkiak nahiz diapositibak aurkez daitezke, zuribeltzez nahiz kolorez. Sariak: 150.000 PTAko 2 sari eta 100.000 PTA diapositiba onenari. epea: uztailak 31.

Arteleku

• Pintura tailerra, Manolo Quejidak zuzendua. Abuztuaren 3tik 31ra, 9etatik

20etara. Matrikula: 13.000 PTA. Izena emateko epea: uztailak 22.

Musika ikastaroak

• "ikasmusika 1992, Bizkaizko Foru Aldundiak antolatuta, postgraduatu, kontzertari ertain eta goimailetako zentru musikaletako ikasleei zuzenduta. Ekainaren 29tik uztailaren 8ra. Ikastaroak: bibolina, biola, biolontzelo, kantua, kitarra, klarineta, kontrabaxua, flauta, piano eta piano laguntzailea. Matrikula-prezioak: ikasle partehartzaileak 15.000 PTA, ikasle entzuleak 10.000.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza
Gipuzkoa

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epea
zabalik dagoela.


ESPEZIALITATEAK:

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

BIGARREN DIPLOMATURAK:

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40
Ordutegia: 9-13



Elektroinjekzio
Zerbitzua

ARRASATE
KONPONKETAK

Zaldispes kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten. Interesatuak dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- Etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.
- Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tfnoa: 79 52 80.
- Uribe auzoan lokala alokagai. Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- Etxea salgai. Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 45 74.
- Bi oheko logela alokagai. Tfnoa: 79 07 73.

LANA

- Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke. Euskara eta ingelesekoak. Tfnoa: 79 04 07.
- Marrazketako klase partikularrak behar dira F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 79 79 04.
- Marrazketa linealeko klaseak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 72 47.
- Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

- Pertsona nagusia zaintzeko andra euskalduna behar da Aretxabalean. Dei egin 10etatik 12etara 79 55 02 tfnora.
- Frantsesezko klase partikularrak behar dira. Dei egin 8,30etatik aurrera 79 09 24 tfnora.
- Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 15 56.
- Hiru pertsonari gitarra erakusteko norbait behar dugu uztailean. Tfnoa: 79 84 81. Rebeka.
- Emakumea etxeko lanak egin, eskailerak garbitu edo umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. Dei egin goizeko 9.30etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.
- Ilea ileapaindegian lan egiteko ofiziala behar da. Tfnoa: 79 87 62.
- Arrasaten klase partikularrak emango nituzke. Matematika, fisika eta teknologia. OHO eta REM mailakoa. Uztailean. Tfnoa: 79 42 70. Esteban.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko euskaraz dakien emakumea behar da. Gasteizen egingo luke lana. Ondo ordainduko nioke. Dei egin 72 39 73 tfnora.
- Klase partikularrak ematen dira ekaina, uztaila eta abuztuan. Euskaraz edo erdaraz. Goizez eta arratsaldez. Ingelesa ere bai. Tfnoa: 79 93 03.

SALEROSKETAK

- Judoan edota karatean afizionatua bazara eta jantzia Kapemi (3) markakoa behar baduzu, dei bizkor 79 66 38 tfnora, gaueko 8.15tik 8.30etara maiatzaren 30a aurretik.
- Egurrezko Ferreki markako 24.000 kaloriako berogailua salgai. Tfnoa: 78 10 41.
- Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai egoera onean. Abanze handiz, pasilo eta guzti: Prezio onean. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.

- Altire modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai. Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- Trikitixa soinua erosi nahi dut. Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurne.
- Salbatlabea, arkoizozgailua eta izozkien bitrina salgai. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- DENON markako bi moduloko anplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai. Dena oso prezio onean. Ez galdu aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.
- Renault 4 zuri eder bat salgai. Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- Honda PX-R salgai. 56.000 PTA tan. Irailera arte badu segurua. Tfnoa: 79 26 16.
- Erabili gabeko erantzule automatikoa salgai. Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69.
- McKinley markako kanping-denda familiarra salgai. Tfnoa: 79 45 39. Edurnegatik galdetu.

DENETARIK

- Ezkontzako urrezko eraztuna aurkitu dut. Zurea bada dei egin 79 83 43 tfnora.
- Duela bi aste perladun urrezko belarritakoak galdu nituen. Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.
- Giltza batzuk galdu dira Bedoñako bidegurutzean. 6-7 giltza bi llaiberorekin, bata kilometrotakoa eta bestea botilak zabaltzekoa. Tfnoa: 79 15 96.
- Larunbata 23an Eskoriatatik Arrasatera auto-stopean etortzean kiroletarako erropak autoan utzi zenituen mutiko horri: Etorri bila Arrasate Pressera.
- Joan den maiatzaren 26an Arrasateko Rosssi abeslari eta aktorea famatuak 42 urte bete zituen. Zorionik beroenak eta urte askotarako izan dadila.



ARRASATEN HILDAKOAK



Jose Luis Arkauz Unamuno,
maiatzaren 27an. 52 urte.

Pablo Aspiazua Agirre,
maiatzaren 29an. 73 urte.

Luziana Elorza Arregi,
maiatzaren 30ean. 93 urte.

Gabino Yarza Abalia,
ekainaren 1ean. 82 urte.

Pablo Inda Errasti,
ekainaren 2an. 77 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Jabi Garcia

Uxarte goxodendakoa



- **Gozozalea izango zara, ba?** Ez gezurra badirudi ere, ez naiz gozozalea.
- **Merengea ala krema?** Krema.
- **Zelako kolonia?** Bat ere ez.
- **Gabonetan postalik bai?** Ez, ez dut ohiturarik.
- **Bazkalostekoa ala tertulia?** Tertulia nahiago izaten dut.
- **Zerbait ospatu behar denean?** Afari on batekin ospatzen dut.
- **Mezetara joaten zara?** Ez, aspaldi ez naiz joan.
- **Atzo ala bihar?** Gaurko egunarekin geratzen naiz.
- **Sagarra gordinik ala erreta?** Gordinik.
- **Musika?** Denetatik piska bat.
- **Turroia biguna ala gogorra?** Gogorra.
- **Eman dizuten kontsejurik onena?** Momentu honetan ez naiz gogoratzen, asko eman dizkirate.
- **Kantu bat?** Genesis taldearen "I can't dance" abestia.
- **Lotia zara?** Bai, ahal dudanean bai behintzat.
- **Erratza ala aspiradora?** Bat ere ez, baina egin behar bada aspiradora.
- **Urtebetetzea gustatzen zaizu?** Bai, ospatzea batez be.
- **Eskurtsio bat?** Ameriketara joango nintzateke.
- **Zeri diozu beldurra?** Gauza askori.
- **Artean egunik onena?** Jai dudan eguna.


Bertsotan

Azterketak

1
Egun hauetan azterketekin kokotetik gora gaude begiak zabal edukitzeko ia adorerik gabe guztiak ere aurkitzen gara logureaz eta grabe hainbat esamin edukitzeak ez du egiten mesede azkenerako burua ere ez bait da aurkitzen trebe.

2
Azken azkenak direla eta denak gainditu beharra aurkitzen ez den lekutik ere atera behar indarra nahiz ta gorputza sentitu oso nekatuta ta baldarra anima zaitetz gero ostean alperrik bait da negarra sakrifikatu leike urtean hilabete bat bakarra.

Leire Basauri



Zurgin Kantoi, 2

Tínoa: 79 20 04

ARRASATE

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



1949

1

949ko martxoaren 20a zen, orain 43 urte beraz, eta argazkian ageritzen direnak orduko Mondra taldeko jokalariek ziren. Joxe Herrasti entrena-

tzaileak utzitako erretratu honetan,

Oñatiko Azkoagain futbolzelaian inaugurazioa egin zeneko oroigarria jasotzen da.

Zutik, ezkerretik hasita, **Joxe Herrasti** bera, **Zubillaga**, **Bittor Balzategi**, **Bolinaga**, **Uribarren**, eta **Pako Azpiazu**.

Behean: **Tomas Zubizarreta "Tololo"**, **Karlos Merkader "Txanxtote"**, **Kortabarria "Txaiku"**,

Egidazu eta **J.M. Aranburu**. Botikinararen arduraduna **Jose Antonio Azurmendi** eta entrenatzailea, **Jazinto Azurmendi "Olantxe"** zen.

Bergarako Or-Konpon ha- maikakoaren aurka jokatu ondoren, 4 eta 3 irabazi eta Arrasatera ekarri zuten kopa ederra. Atzekaldean ikus daitekeenez, jende ugari izan zen partidua ikusten ere.

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65



UXARTE

**Kafetegia,
gozotegia**


Gaez irekita!!

JO TA KE!!

Bañez dokorea, 12

Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

Gurutzegramak




Horizontalak

1. Euskararen Gaitasun Agiria
4. Momentua
8. Arrasateko frontoi eta parkea
9. Modu
10. (Ald.) Beta
11. Marokkoko hiriburua
13. (Ald.) Iso
14. Sententzia
16. Ur ugaztunen ordenakoa
19. Baliogabetu

Bertikalak

1. Huskeria
2. Desarroilo
3. Goratu
4. (Ald.) Antz.
5. Nazio Batuen Erakundea
6. Donostia eta Donostian
7. Zeregina
12. (Ald.) Lurra iraultzeko lanabesa
15. Erreakziozko hegazkina
17. Zamorako ibilgailuetan
18. Koruko bokalak



JUAN BAUTISTA AGORRIA

ORL UNITATEA

- Entzumena
- Sudurra
- Eztarria

EKAINAREN 1etik AURRERA

Zulueta eta Estefano doktoreak

Kontsulta egunak:

- astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala
- arratsaldetik 4etatik 8etara



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Ostiral Musikala

Ostiralean 9.20etan

Ostiral honetan orkestra sinfonikoa izango da aztergai. Horretarako Marta Izagirrek aurretik prestatutako bideoak eta elkarrizketa batzuk tartekatuko ditu. Orkestako partaideak izango ditugu gure estudioan.

ATBketan

Bi talde lehian afari zoragarri bat lortzeko

Osteguna
9.20etan

Txatxaran

Jabi Ozaeta izango dugu kontu kontari

Asteazkena
9.15etan

Ostiral Musikala

Orkestra Sinfonikoaren inguruan bideoa eta protagonistak

Ostirala
9.30etan

Telebegi

Duela gutxi jakin izan dugu Gibraltarreko itsasartea zeharkatu asmoz, hogeitaz hamar ito direla ur gupidagabeetan. Arestian kontatu digute Thailandian hil dituztenen berri. Lehengo egunean esan ziguten Amazoniako oihanen egoera gero eta okerragoa dela. Eta, gainera, ozono geruzaren tamaina mehetuz doa eta han-hemenka zuloak agertu zaizkio...

Komunikabideetan titular gisa joan dira guzti horiek azken aldi honetan. Telebistak etxera sartu dizkigu trajeriaren irudiak. Eta askok, agian, pentsatuko du: "Zer demontre! Mundu hau ezin leikek konpondu!..."

Nire ustez, komunikabideetako lana sarri bihurtzen da gogoen baregarri (ez barregarri!). Izan ere, telebista aurrean gaudela gutxitan galdetzen diogu geure buruari ea zer egin dezakegun egoera horiek errepika ez daitezene. Eta berri horiek jasotzen ditugunean kontsumitzaile pasibo gisa hartzen ditugu, albisteen kontsumitzaileak. Hori ez da gizabidezkoa. Pantaila aurrean, eritxidun izan behar dugu edo piskanaka gure eritzia eraikiz joan.

Hauze da nire eritzia.

KOLDO RODRIGUEZ

Programazioa

8

ASTELEHENA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albisteen aurrerapena.
- 9.20etan, **Mondra Sport**. Gerardo eta Mikelen eskutik, astean izandako kirolen berri izango dugu saio honetan.
- 9.50. **Asteko zinea**: Jeremiah Johnson

9

ASTEARTEA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Jon Andueza eta bere ekipoak jasotako informazioa.

- 8.20. **Erreportaiak**: Hizkuntza bat ikasten, HIESaren astea, SUDCek antolatutako ekin-tzak.
- 9.50. **Asteko zinea**: Jeremiah Johnson.

10

ASTEAZKENA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Informazio zehatza.
- 9.15 **Txatxaran**. Asteazken honetan Jabi Ozaeta izango dugu kontu kontari.
- 9.50. **Asteko zinea**: Jeremiah Johnson.

11

OSTEGUNA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
- 9.20. **ATBketan**. Talde berri bat izango dugu joan zen astean irabazi zuenaren kontra lehian.
- 9.50. **Asteko zinea**: Jeremiah Johnson.

12

OSTIRALA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Elkarrizketa eta bideoen bidez, eguneko albistek ezagutzeko albistegia.
- 9.30. **Ostiral musikala**. Orkestra sinfonikoa izango da gure artean.
- 9.50. **Asteko zinea**: Jeremiah Johnson.

GAUZAK



- MODAKO OSAGAIAK
- POLTSAK ETA BISUTERIA
- LARRUZKO JANTZIAK ETA GERRIKOAK
- KOTOIZKO JANTZIAK

FORUEN PLAZA, 2 TFNOA: 79 90 62 ARRASATE